2026KO ZEMENDIAREN 13A

begoñazpi aldizkaria

begoñazpi ikastola

NAZIOARTEKO BATXILERGOAREN GAINEKO FORMAKUNTZA MADRILEN



Lehen Hezkuntzako Programan (LHP-PEP) eta Bitarteko Ikasketen Programan (BIP-PAI) sakonduko dogu.

Barri gehiago

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK HHn

HOMELESS FILM FESTIVAL

LEHEN HEZKUNTZAKO JARDUERAK

NAZIOARTEKO BATXILERGOA


Nazioarteko Batxilergoan sakontzen eta ikasten jarraitzen dogu

Aurreko astean Madrilen izan zan Nazioarteko Batxilergoak (IB) antolatutako prestakuntza-saioan parte hartu genduan. Prestakuntzaz gain, IBren hezkuntza-eredua lantzen daben ikastetxe bi ikusi genduzan. Bisita horreek oso aberasgarriak izan ziran, beste errealitate batzuk ezagutzeko, jardunbide egokiak partekatzeko eta Begoñazpi Ikastolan emon gura doguzan hurrengo urratsen gainean hausnartzeko bidea be emon euskuen eta. Begoñazpin, gure sustraiei eutsiz, mundura zabaltzen jarraituko dogu.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Begoñazpi Ikastola Homeless Film Festival jaialdiaren XI. edizinoan saritua





Begoñazpi Ikastolako DBH 4. mailako ikasleek Bizitegi Elkarteak antolatutako Homeless Film Festival jaialdiaren XI. edizinoan parte hartu dabe zemendiaren 12an.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO

Ateak Zabaltzeko Egunak lau urtekoen gelatan

Lau urtekoen geletan Ateak Zabaltzeko Egunak jardunaldia izan dogu. Familiek gelara hurreratzeko ezezik, seme-alaben egunerokoa bertatik bertara bizitzeko modua izan dabe.



INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Santimamiñen Historiaurrea ezagutuz

LH 5. mailako ikasleak Historia proiektuan murgilduta dabilz. Hori dala eta, Historiaurrea landu ondoren, Santimamiñeko kobazulora joan dira. Iraganera bidaiatzeko eta gure sustraien barri izaten jarraitzeko esperientzia ederra, benetan!

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Gure garraio publikora bidaia

LH 3. mailako ikasleak "Londresera noa" proiektuan, garraiobideak lantzen ibili dira. Horren harira, Metro Bilbaora joan gara. Urteera honen bidez, modu praktiko eta esanguratsua sustatuz, gelan landutakoa eta errealitatea bera, bertatik bertara bizi izan dogu.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Gelatik kanpo Euskal Herria ezagutuz

Euskal Herria proiektuan lantzen dabilzan edukiak bertatik bertara ikusi, aztertu eta guztiaren barri jasotzera, LH 4. mailako ikasleak Artziniegara joan dira. Gure sustraien nondik-norakoak jakiteko eta Euskal Herriko ondarearen aberastasuna baloratzeko ederra esperientzia!

INFO GEHIAGO | MÁS INFO